

Nafarroako hizkuntza-politika garatzeko



15 proposamen



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA



SARRERA

2015eko apirilaren 25ean leporaino beteta zegoen Anaitasuna kiroldegian milaka euskaltzaleren aurrean KONTSEILUAK hizki handiz idatzitako aldaketak zein ezaugarri izan beharko lituzkeen partekatu zuen.

Izan ere, euskaraz bizi nahi duten eta euskararen alde dauden milaka nafarrek aukera errealak ikusten zituzten hamarkada luzez euskaldunak ikusgabetu, eskubidez gabetu zituzten politikei amaiera eman eta berdintasuna ardatz izango zuen aldaketari ekiteko.

Eta, etorri egin zen aldaketa. Eta hainbat gauza aldatzen hasi ziren.

Harremani dagokienez, zalantzarik ez dago harreman-eredua aldatu dela 2015etik aurrera. Euskalgintzari ateak zabalduko zaizkio: Euskalgintzako eragileek eta instituzioek ekin diote berriz ere elkarlanari. Horri esker hainbat proiektu modu egokiagoan garatu ahal izan dira, bai eta proiektu berriak abian jarri ere.

Halere, egia ere bada, hainbat kezka ere izan ditugula legegintzaldian. Kezkatu gaitu, bai, nahi baino gehiagotan geure iritzia kontuan hartu ez izanak, edota etorkizunean euskararen normalizazioan eragina izango zuten erabakiak jorratzean, Euskalgintza kanpoan utzi izanak. Zinez uste dugu elkarren arteko konplizitateek eta harremanek aitortzan dutela lehen urratsa, eta euskararekin lotutako erabakiak jorratu behar izan direnean Euskalgintza ez gonbidatzea ez da ulertzen.

Halere, Euskalgintzak, eta nola ez Kontseiluak, erantzukizun osoz jokatu du legegintzaldi honetan. Hasieratik argi genuen aldaketa ahalbidetzearen aldeko apustua egin behar genuela eta are argiago aldaketak geratzeko etorri behar zuela Nafarroara.

Horrexegatik, Kontseiluak bi irizpideren arabera jokatu du legegintzaldian; batetik, Gobernuak hartzen zituen erabakiak hala edo nola babestea, eta ez-nahikoak iruditu arren, kritika publikorik ez egitea. Bigarrenik, Gobernuak hartzen zituen erabaki estrategikoetan kontrakoan oldarraldia izanez gero, gizartea astintzea, Gobernuari babesa erakusteko. Halaxe egin genuen zerrenda bakarraren aferan, esaterako.

Halaber, gogora ekarri nahi dugu legegintzaldiaren urteurrena izan zenean, Iruñeko karrikak bete genituela Gobernuari euskarari bide eman diezaiola eskatzeko. Azken finean, gizartea mobilizatu genuen Gobernuak erabaki ausartak hartzean babesa izango zuela ikustarazteko.

Urratsak egin dira, bai, baina uste dugu aurreko inertzia batzuek bere horretan jarraitzen dutela: Nafarroan ofizialak eta berezkoak ez diren hizkuntzen ezagutza baloratzen jarraitzen da, eta euskara laugarren mailako hizkuntza bihurtzen dute; euskarazko ereduaren kontra sortutako

*Kontseiluak
erantzukizun osoz
jokatu du
legegintzaldi
honetan. Hasieratik
argi genuen aldaketa
ahalbidetzearen
aldeko apustua egin
behar genuela eta
are argiago
aldaketak geratzeko
etorri behar zuela
Nafarroara.*



PAI progamek bere horretan jarraitzen dute eta ikusi dugu zein eragina duten; funtzionario elebidunak legez diskriminatzen dira euskara jakiteagatik; edozein erabaki hartzean herritarren arteko kohesioari eragingo liokeen onurari baino, kontrakoen balizko oldarraldiari begiratzen zaio gehiegitan. Euskaraz bizitzeko eskubidearen gainean jartzen dira hirugarren batzuen kexak.

Urratsak egin dira, bai, baina uste dugu aurreko inertzia batzuek bere horretan jarraitzen dutela.

Horrela, bidegabekeria asko dago oraindik Nafarroan. Are gehiago, oraindik herritarrei hizkuntza-eskubideak bizi diren tokiaren arabera aitortzen zaizkie.

Halere, etorkizunari begira jarri behar dugu eta Kontseiluak berriz ere erantzukizunez jokatu nahi du. Horrexegatik, legegintzaldi berriari begira hizkuntza-politikari buruzko proposamen berritua egin nahi izan du.

Eskuartean duzun proposamen honek 15 eremu biltzen ditu, eta eremu bakoitzean konpromiso edo neurri zehatzak jasotzen dira. Izan ere, neurri eragingarrien aroa izan behar du legegintzaldi berriak. Gainera, eremu batzuetan legegintzaldi hasieran zer aldatu behar den definitu dugu. Arestian esan bezala, urte luzez garatutako inertziei amaiera eman behar zaie hasieratik bertatik. Ulertezina litzateke aldaketaren aldeko urte luzez euskaldunak zokoratzeko eta herritarren arteko bereizkeria are handiagoa sortzeko abian jarri zituen hainbat neurri baliogabetu ez izana.

Egindakoari begiratu, baina egin beharrekoari arreta jarri behar diogu. Orain da garaia hurrengo urteetako politikaren oinarriak non kokatuko diren azaltzeko. Orain dagokie alderdiei esatea hurrengo legegintzaldian zein puntutaraino apurtu nahi duten urteetan euskaldunak diskriminatzeko abian jarri zituzten inertziekin.

Kontseiluan argi dugu erantzukizuna izango dugula ardatz, baina herritarren eskubideak aurrean jarriko ditugu. Izan dadila legegintzaldi berria hurrengo belaunaldiek euskararen, berdintasunaren, kohesioaren, justiziaren legegintzaldi gisa ezagutuko dutena. Azken boladan esan dugun bezala #EskutikDugu

Iruñean, 2019ko udaberrian





Nafarroako hizkuntza-politika garatzeko 15 proposamen

1. Arkitektura juridikoa aldatzea:

- Euskararen Lege Berria onartzea, Nafarroako Parlamentuak jarritako printzipio iradokitzaileak ardatz: Hizkuntza-eskubideak bermatzea, zonifikazioa gainditzea eta ofizialtasuna Nafarroa osora hedatzea
- Euskararen Lege Berriak Kontseiluak Parlamentuko Batzorde Berezian aurkeztutako proposamenak biltzen dituen printzipio nagusiak eta eremuak jasotzea.

LEGEGINTZALDI HASIERAN:

- *Irakaskuntzan zerrenda bakarra bermatzeko araudia abian jartzea.*
- *Administrazioko langile elebidunen lege bidezko diskriminazioarekin arau bidez amaitzea.*

2. Hizkuntza-politika gobernuaren politiken zeharlerro bihurtzea:

- Departamentuetan hizkuntza-politikarako arduradunak izendatzea
- Departamentuen arteko hizkuntza-politika koordinatzeko gunea eratzea
- Foru Gobernuako departamentuek zeinek bere euskara plana egin, garatu eta ebaluatu behar izatea.
- Euskara-planak diruz hornitzea

3. Administrazioa euskalduntzea:

- Administrazioan euskararen erabilera arautzeko Dekretua eguneratzea, honako hauek, kontuan hartuta:
 - *Ahal da kontzeptutik --> behar da kontzeptura jauzi egitea.*
 - Botere publikoek betebeharrak izatea herritarren eskubideak bermatzeko.
 - Langileen gaitasunaren inguruko irizpideak berrikustea, beti ere herritarren eskubideen bermea helburu.
 - Departamentuetako plangintzetan euskarazko zirkuituak zehaztea.

LEGEGINTZALDI HASIERAN:

- *Euskararen ezagutza beste hizkuntzen ezagutza baino gutxiago inoiz ez baloratzeko erabakia hartzea.*

- Herritarrei euskara hutsezko harremana bermatzea.





HASIERAN:
D ereduari
hizkuntza-
programak
derrigorrez
ezin ezartzea.

4. Hezkuntza-sistemak belaunaldi berriak euskalduntzeko sistemak jartzea:

- Hezkuntza-sistemaren barruko ikasle guztiak hamasei urte betetzean euskararen jabe izan daitezen, D eredia abiapuntu, irakasteredu egoki bat ezartzea.
- Aurreko proposamena betetzeko, beharrezko birmoldaketak egitea eta behar besteko baliabideak eskaintzea.
- Ikastolen egungo eta etorkizuneko egoera aztertzea eta aintzat hartzea, hainbat hamarkadatan euskara normalizatzeko egin duten ekarpena kontuan izanik.

HASIERAN:
AEKrekin eta
IKArekin
sektorea
egonkortzeko
hitzarmena
legegintzaldi
hasieran
sinatzea.

5. Helduen euskalduntzearen sektore indartzea:

- Sektoreak doakotasuneranzko bidean egindako proposamena inplementatzea.
- Doakotasunera iristeko bost urteko plangintza ekonomikoa egitea.
- Helduen euskalduntzearen sektorea hezkuntza departamentuan kokatzea.
- Laguntzei begirako leihatila bakarra jartzea Nafarroa osorako.
- Euskalduntze-prozesu osoa diruz laguntzea.
- Sektorea berrantolatzea.

6. Arlo sozioekonomikoa euskalduntzea:

- Kontsumitzaile euskaldunei eskubideak legez aitortzea.
- Institutioen zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei, elkarteei... hizkuntza-irizpideak ezartzea herritarren eskubideak bermatzeko.
- Institutioek egiten dituzten kontratazioetan hizkuntza-klausulak jartzea.
- Euskara-planak sustatzea eta diruz laguntzea.

7. Euskarazko hedabideak babestea:

- Hitzarmenak ezartzea euskarazko hedabideen finantzaketa hobetzeko.
- Gobernuaren eta sektorearen arteko lankidetzak-guneak sortzea.
- Hizkuntza-kuotak jartzea zuzeneko edo zeharkako finantzaketa hartzen duten hedabideetan.
- Euskara hutsezko hedabideetan publizitate instituzionala bermatzea.

8. Euskararen aurrekontua handitzea:

- Hizkuntza-politikari esleitutako aurrekontua aurrekontu orokorraren % 2 izatea, gutxienez.





9. Unibertsitatea eta lanbide-heziketa euskalduntzea:

- Unibertsitate-ikasketetan ikasgaiak euskaraz eskaintzea, %60 gutxienez.
- Ikasketa guztietan enborreko ikasgaiak euskaraz eskaintzea.
- Erizaintza ikasketak euskaraz eskaintzea.
- Arreta berezitua jartzea eskaintzen eta eskainiko diren ikasketa berrietan, besteak beste, medikuntza, psikologian eta historian.
- Plangintza bat prestatzea legegintzaldian zehar Lanbide Heziketako eskaintzan %60, gutxienez, euskaraz izateko.

10. Euskarazko kultur sistema sustatzea:

- Kulturaren eta kirolaren esparruetan eskaintzen diren jardueren euskarazko eskaintza bermatzea.
- Gizarte eragileei berariazko laguntzak esleitzea euskarazko jarduerak abian jartzeko.



11. Aisia euskalduntzea:

- Baldintza-agirietan neurriak sartzea euskarak aisiaren, kulturaren eta kirolaren arloan diruz lagunduriko jardueretan aski presentzia izanen duela bermatzeko.
- Diru publikoz laguntzen diren programetako begirale, hezitzaile, entrenatzaile, dinamizatzaile eta halakoen kontratazioetan hizkuntza-irizpideak txertatzea.
- Aisialdi antolatua arloan, nerabeei eta gazteei interesatzen zaizkien euskarazko jarduerak bermatzea.
- Monitore, hezitzaile eta entrenatzaileei begirako ikastaroak euskaraz eskaintzea.

12. Arnasguneak babestea:

- Arnasguneen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezakete proiektuak edo plangintzak onesteko prozesuan Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egitea eta horren arabera egokitze-neurriak jartzea.
- Udalerri euskaldunak Nafarroa osorako erreferente bihurtzeko ekimenak eta haien garapen kulturalki iraunkorra balioestea.

13. Ingurune digitalari erreparatzea:

- Ingurune digitalari lotutako estrategia bateratua abian jartzea, interlokuzio bakarra eta burujabetza digitala bilduko dituen.
- Diru-laguntza politikan hizkuntza-irizpideak ezartzea.
- Administrazioak bere software guztia euskaraz ezartzeko erabakia hartzea.



14. Erabilera soziala eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko ekimenak sustatzea:

- Hizkuntza-ohiturak aldatzeko eta finkatzeko ekimenak eta espazioak garatzea: Euskaraldia, Mintzalaguna, haur eta gazteentzako aisialdi-klubak, gazteei zuzenduriko espazioak, gogoetak, ekitaldiak, kultur eta aisialdi-eskaintza...
- Hitzun berri erdaldun edota etorri berriak euskal komunitatera hurbiltzeko ekimenak eta espazioak garatu eta sustatzea.
- Entitateak euskalduntzeko estrategiak garatzea: kirol klubak, kultur elkarteak, herri-elkarteak, dantza-taldea, abesbatzak, etab.

15. Hizkuntza-politika egokia abian jartzea:

Hizkuntza-politika egokia abiatzea ezinbestekoa da euskararen normalizazioa lortu nahi bada. Kontseiluaren aburuz, egokitasun horren jabe den hizkuntza-politikak honakoa izan behar du:

- Epe eta helburu zehatzak, bitartekoz hornitua, sail artekoa, gizarteko sektore guztietara iristeko modukoa, Administrazio Nagusitik Toki Administrazioarainokoa, hizkuntza-eskubideak bermatu nahi dituen, Nafarroa osoan aplikatzeko modukoa eta ikuspegi osokoa, eta euskararen erabilera normalizatua helburu duena.
- Administrazio guztien arteko koordinazio organoa.
- Osagarritasuna, herri-mugimenduak sortzen dituen proiektuekin indarrak metatzea helburu.
- Euskaingintzako agenteekin elkarlan iraunkorra, hizkuntza-gobernantza eredu berriak helburu.



Orain da garaia hurrengo urteetako politikaren oinarriak non kokatuko diren azaltzeko. Orain dagokie alderdiei esatea hurrengo legegintzaldian zein puntutaraino apurtu nahi duten urte luzez jasandako inertziekin.

EUSKARARI BIDEA ELKARREKIN



@kontseilua



@EuskararenKontseilua
